

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 524/2020 Erabakia, azaroaren 3koa. Onespena ematea Subilla Gasteizko Kontzejuko batzorde kudeatzaileko kideen izendapenari

Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Arabako Foru Aldundiari ezagutarazi dio hutsik daudela hainbat kargu Subilla Gasteizko Administrazio Batzarrean, kide guztiek beren karguei uko egin dietelako eta ez dagoelako kargu horiek beteko dituen hautetsi ordezkorik.

Horiek horrela, bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuetako Errejidore eta Kideak hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan eta Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak (Arabako administrazio batzarretako kudeaketa batzorde eta kide kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta haien funtzionamenduari buruzko arauak ezartzen ditu) bigarren apartatuan xedatutakoarekin, bidezkoa da, berriz ere hauteskundeetarako deia egin arte, administrazio batzarrean dauden kargu hutsak beteko dituzten pertsonak izendatzea, kudeaketa batzorde gisa jarduteko.

Diputatuen nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak sail honi ematen dio administrazio batzarretako hauteskunde araubidearen jarraipena egiteko ahalmena, beste eginkizun batzuen artean. Horren ondorioz, erakunde honi dagokio kargu horiek beteko dituzten pertsonak proposatzea, Foru Aldundiak izenda ditzan.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orokaren Saileko diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Subilla Gasteizko Kontzejuko batzorde kudeatzaileko kide hauek izendatzea:

Batzordeburua: Fernando Díaz de Monasterioguren Barredo.

Lehen batzordekidea: José Antonio Alaña Ortiz de Zárate.

Bigarren batzordekide: Iker García-Calvo García.

Bigarrena. Kide horiek erabaki hau jakinarazi ondorengo zazpigarren egun baliodunean hartuko dute kargua, 20:00etan, kontzejuaren aretoan edo biltzeko ohiko lekuan. Horretarako ez da berariazko deialdirik egin behar, eta bilerara, izendatukoez gain, erakundeko idazkariak joan behar, eta bileraren akta idatziko du.

Bilkura egin eta hurrengo hiru egunen barruan bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari bilkura horretako aktaren ziurtagiria.

Hirugarrena. Lurralde Orokaren Sailak ALHAOn argitara dezala erabaki hau.

Laugarrena. Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori

guztia bat etorri Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orokaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orokaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA